

OMBUAREN ITZALA

NAIA ARANTZAMENDI

Pello Mari Otaño poeta eta bertsolari zizurkildarraren bizitzako pasarteetan oinarritutako *Ombuaren itzala* filma zuzendu du Patxi Bisquertek. Otaño euskal kulturaren izandako eragina azpimarratzeko egindako lana auzo-lanean atera dute aurrera.


Nondik sortu zen filma egiteko ideia?

2010ean, Otaño hil zeneko lehen mendeurrenean, omenaldi bat egin zioten Zizurkilen. Harrituta geratu nintzen, nire ustez horrelako sortzaile handi batek nazio mailako omenaldi bat merezi zuelako, ez soilik bere herrian. Amorrazioa ematen zidan bere figura aldarrikatzeko edo errekupe-ratzeko borondaterik ez zegoela ikus-teak, eta esan nuen “ni zinemagilea izanda, zer egin dezaket? Film bat”.

Ez du izan merezitako errekonozimendurik?

Bere garaian gure kulturako erreferente nagusietako bat izan zen. Momentu txar haietan, foruak desagertu ondoren, herria hankaz gora geratu zen eta bera izan zen erreferente kulturala, eta berpizkunde garai horietan aitzindari ere bai. Pertsona eztabai-dagarria izan zen, tokatu zitzaion garaia ere horrelakoa izan baitzen. Eta momentu batean ahanzturaren zu-

Patxi Bisquert: “Gure kulturako erreferente nagusietako bat izan zen”



JORGE FUENBUENA

lo beltzean erori zen. Nik uste nuen herri honek figura hau errekupe-ratu egin behar zuela.

Ohituta kameraren aurrean egotera, nolakoa izan da atzean jartzea?

Filmaren bultzatzaile izan nintzen baina garai hartan ez nuen zuzendari izan nahi, ezta ekoizle ere. Bi gauza horiek beste batzuen eskuetan utzi eta Otaño gorpuztu nahi nuen. Ekoiztetxe bat bilatu nahi nuen filma

gauzatzeko eta bederatzi urte galdu nituen ate joka. Ez nuenez ezer lortu, 2020an auzolanean egitea erabaki nuen eta, azkenean, lau urteren buruan gauzatu dugu.

Zergatik fikzio bat?

Lehenengo aukera dokumental dramatizatu bat egitea izan zen. Baina ez dago ia dokumentaziorik berari buruz, garaiko albiste laburrak soilik.

Dokumentazio falta kontuan izanda, nola osatu duzue Otañoen pertsonaia?

Pertsonaia aztertzeke bestelako informaziorik ez genuenez gero, bere egintzan oinarritu ginen, bere bertsoetan. Horrek nolabait tenorea eman zigun Otañoen bizitza jarraitzeke, pertsonaiak berak izan zuen eboluzio politikoa ulertzeke eta kronologia mantentzeke.

Belaunaldi berriak hurbiltzeke erre-minta izan daitekeela uste duzu?

Zalantzarik gabe, Pedro Mari Otaño bertsolaritzari lotua dagoen jende helduaren artean da ezaguna, baina

hortik kanpo ez. Historia aurrera eramaten hasi ginenean, udaletxe, ikastola, elkarte... Leku horietara joatean pedagogia egiten ari ginela konturatu nintzen. Emanaldi bakoitzean bere memoria aldarrikatzen genuen eta ale bat uzten joan gara. Filma osatu gabe egon arren, Otañoen erreferentzia hor egon da urte guzti hauetan.

Filmak emanaldi asko izan ditu. Nolako harrera izan du?

Azaroaren 30ean estreinatu genuen Zizurkilen eta 4.000 pertsonatik gora ikusi dute jada otsailetik aurrera herri herri egindako ibilbideari esker. Hor konturatu nintzen jendeari filma gustatu zitzaiola. Emanaldi osteko solasaldietan jende guztia geratzen zen, eta aurpegiek gauza asko esaten zuten. Bada, aurpegietan zein begiradetan ilusio bat ikusten nuen.

Zinemaldiko Zinemira sailean egongo zarete. Nola jaso zenuen berria?

Leku bat izango genuela jakiteak lasaitasuna eman zigun. Ondo egindako lanaren errekonozimendu gisa hartu genuen.

¡CÓMO NOS GUSTA EL CINE!

73 SSIFF
Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

EL DIARIO VASCO

egunero zurekin
cada día contigo